



8-2026 ebazpena, Musikeneko Zuzendari Kudeatzailearena, martxoaren 31koa, 2026-2027 ikasturterako irakasleak hautatzeko deialdia argitara ematen duena

Musikene - Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian irakasle baten erretiroa dela eta "Inprobisazioaren teoria eta praktika, IV" irakasgaiari sortutako beharrei behin betiko izaeraz erantzuteko helburuz,

Resolución 8 2026, de 31 de marzo, del Director Gerente de Musikene, por la que se hace pública la siguiente convocatoria de selección de profesorado para el curso 2026-2027

Con el objeto de atender las necesidades de profesorado por jubilación en la asignatura "Teoría y práctica de la improvisación, IV" con carácter definitivo en el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene,

EBAZTEN DUT

irakasle-hautaketa prozesu publiko bat onartzea. Honako hauek dira prozesu horren

RESUELVO

aprobar un proceso público de selección conforme a las siguientes

OINARRIAK

Lehenengoa.- **Deialdiaren xedea.-**

Deialdiaren xedea honakoa: deialdi honetan ezarritako prozeduraren bitartez, I. eranskinean zehazten den irakasle-lanpostua hornitzea, ekainaren 25eko 368/2013 Dekretuaren (uztailaren 29ko EHAA) eta maiatzaren 14ko 631/2010 Errege Dekretuak araututako diziplinen arabera, bertan arautzen baitira maiatzaren 3ko Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoan (BOE 106, 2006ko maiatzaren 4koa) ezartzen diren Goi Mailako Musika Ikasketa Artistikoen oinarrizko edukia, eta goi-mailako arte irakaskuntzak arautzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legearen arabera aplikatzekoa den guztiagatik.

Bigarrena.- **Baldintzak.-**

Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Adin nagusia izatea eta, oro har erretirorako ezarritako adina betea ez izatea.

b) Nazionalitatea

- Espainiar nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko herritarra izatea, edota Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan barne hartuta egotea, betiere langileen joan-etorri askea aplikatzekoa denean.

BASES

Primera.- **Objeto de la convocatoria.-**

Es su objeto la provisión por el procedimiento establecido en esta convocatoria, de la plaza de profesor/a que se relaciona en el Anexo I, conforme a las disciplinas reguladas en el plan de estudios del Decreto 368/2013, de 25 de junio (BOPV de 29 de julio) y del Real Decreto 631/2010, de 14 de mayo por el que se regula el contenido básico de las Enseñanzas Artísticas Superiores en Música establecidas en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (BOE nº 106 de 4 de mayo de 2006), y por aquello que sea de aplicación según la Ley 1/2024 de 7 de junio, por la que se regulan las enseñanzas artísticas superiores.

Segunda.- **Requisitos.-**

Las personas aspirantes deberán cumplir los siguientes requisitos el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes:

a) Tener cumplida la mayoría de edad y no haber cumplido la edad establecida, con carácter general, para la jubilación.

b) Nacionalidad

- Tener la nacionalidad española o ser nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, o persona incluida en el ámbito de aplicación de los Tratados Internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por España, en los que sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.



- Espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarren ezkontideek parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik goragokoak izanik, haien kontura bizi badira.

- Espainian edo Europar Batasunean legez bizi diren atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarren baldintza berberetan. Nolanahi ere, hautatua izan den pertsonak atzerriko nazionalitatea badu kontratazioa gauzatu aurretik eta lanpostua bereganatzeko ezinbesteko eskakizun gisa Gizarte Segurantzaren sisteman alta emateko beharrezko diren dokumentu administratiboak lortu beharko ditu (AIZ, lan-baimena...). Kontratazioa gauzatzeko unean horretarako eta Espainiako Erreinuan indarrean dagoen Gizarte Segurantzaren alta emateko nahitaezko dokumentuak ematen ez badira, aurkeztu den lanpostua bereganatzeko eskubidea galduko da eta hautaketa prozesuan hurrengo lekuan geratu den hautagaiak izango du eskubide hori. Espainiako Gizarte Segurantzaren baliokide den atzerriko erakunde batek erreklamazioa egiten eta horren ondorioz deialdi honetan irabazle gertatzen den pertsonaren alta Espainian mantentzerik ez balego, pertsona horri baja eman dakioke Musikene.

c) Goi-mailako musika-titulua izatea edo graduatua, lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria izatea, edo lege horien baliokidetzat hartzen den beste edozein titulu izatea. Titulua atzerrian lortu bada, titulu horren homologazioa egiaztatu beharko da azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera. Martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 20.5 artikulua arabera, kontutan hartuko dira baita ere derrigor titulua ez duten hautagaitzak, beti ere beharrezko den kualifikazio profesionala erakusten dutenean eta beren ekimena arlo horretan garatzen dutenean, edo atzerriko nazionalitatea dutenean, bere kualifikazioarekin eta hezkuntza-sistemeekin bat etorritik beti ere.

d) Deialdi honek helburu duen materiari dagozkion zereginekin bateragarri ez diren gaixotasunik edo muga fisikorik ez izatea.

- Cualquiera que sea su nacionalidad podrá también participar el/la cónyuge de las personas españolas y de las personas nacionales de otros estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre que no estén separados de derecho, sean menores de veintinueve años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

- Asimismo, podrán acceder en condiciones de igualdad con las personas nacionales de Estados miembros de la Unión Europea, las personas extranjeras residentes legalmente en España o en la Unión Europea. En todo caso, si la persona seleccionada es de nacionalidad extranjera, con carácter previo a su contratación y como requisito obligatorio para acceder al puesto convocado deberá obtener obligatoriamente la documentación administrativa necesaria (NIE, permiso de trabajo...) para poder cursar su alta en el sistema de Seguridad Social. La falta de aportación de la documentación preceptiva en el momento de formalización del contrato para cursar el alta del trabajador en el sistema de Seguridad Social vigente en el Reino de España conllevará la pérdida del derecho al acceso al puesto al que se haya presentado, pasando el mismo a la persona aspirante que haya quedado en el siguiente lugar del proceso selectivo. Si por reclamación de una entidad extranjera equivalente a la Seguridad Social Española no se pudiese mantener el alta de la persona ganadora de esta convocatoria en España, dicha persona podría causar baja en Musikene.

c) Estar en posesión del título superior de música, graduado, licenciado, arquitecto, ingeniero o cualquier otra titulación superior que tenga reconocida legalmente su equivalencia con éstas. En el caso de titulaciones obtenidas en el extranjero deberá acreditarse la homologación del título de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 967/2014 de 21 de noviembre. En función del art. 20.5 del RD 303/2010, de 15 de marzo, se considerarán igualmente las candidaturas de profesionales no necesariamente titulados/as que ostenten la necesaria cualificación profesional y desarrollen su actividad en el ámbito laboral o tengan nacionalidad extranjera, de conformidad con su cualificación y las necesidades del sistema educativo.

d) No padecer enfermedad o limitación física que sea incompatible con el desempeño de las funciones correspondientes a la materia objeto de esta convocatoria.



e) Diziplinazko espediente baten ondorioz edozein Administrazio Publiko edo Autonomia Erkidegotako organo konstituzional edo estatutarioetatik kanporatua ez izana, edo epai-erabaki baten ondorioz desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea lanbide edo kargu publikoetan aurretik betetzen zituen antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izatekotan, kanporatua ez izana edo egoera baliokidea, edo diziplinazko zigorrak jaso ez izana edo baliokidea, bere Estatuan, baldintza beretan, enplegu publikorako sarbidea eragotzen diona.

f) Sexu askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik epai irmo bidez kondenatua ez izatea.

g) Honen bitartez deitzen den lanpostua jarduera abenduaren 26ko 53/1984 Legearen eraginpean egongo da, Administrazio Publikoetako langileen bateraezintasunei buruzkoa, eta baita apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuaren eraginpean ere, Estatuko eta Gizarte Segurantzako, eta horien menpeko erakunde eta enpresetako langileen bateraezintasunei buruzkoa.

Hirugarrena.- **Eskaerak bidaltzea: izen-ematea, tasak ordaintzea eta aurkeztu beharreko dokumentuak.-**

Hautaketa-prozedura honetan parte hartu nahi dutenek urrats hauek gauzatu beharko dituzte:

1. **On line izena ematea:** Musikeneko webguneko (www.musikene.eus) irakasle hautaketa atalean horretarako egongo den izen-emate orria bete beharko da Laugarren oinarrian ezarritako epean.
2. **Tasak ordaintzea:** deialdi honetan parte hartu ahal izateko hautagai bakoitzak 42 €ko tasa ordaindu beharko du.
Zenbateko hori ordaintzeak deialdian parte hartzeko eskubidea ematen du soilik, eta ez parte-hartzearen ondorioz hautagaiak izan ditzaken gastuen ordainketa.

Tasa eskaerak bidaltzeko epearen barruan ordaindu beharko da eta ez da inolaz ere itzuliko. Gauzatu ahal izateko jarraian adierazten den kontu korrontean ordainketa egin beharko da:

IBAN: ES25 2095 0611 0410 6240 7878
SWIFT-BIC: BASKES2BXXX

e) No haber sido separado mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial para ejercer funciones similares a las que desempeñaban previamente. En caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos, el acceso al empleo público.

f) No haber sido condenado/a por sentencia firme por algún delito contra la libertad e indemnidad sexual.

g) El desempeño del puesto de trabajo convocado quedará sometido a la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al servicio de las Administraciones Públicas, y al Real Decreto 598/1985, de 30 de abril, sobre incompatibilidades del personal al servicio del Estado, de la Seguridad Social y de los entes, organismos y empresas dependientes.

Tercera.- **Presentación de solicitudes: inscripción, abono de tasas y documentación.-**

Quienes tengan interés en participar en el presente procedimiento selectivo deberán cumplir los siguientes pasos:

1. **Inscripción on line** mediante un formulario que estará disponible en el apartado de selección de profesorado de la página web de Musikene (www.musikene.eus) en los plazos establecidos en la base Cuarta.
2. **Abono de tasas:** para poder participar en la presente convocatoria cada aspirante habrá de abonar una tasa de inscripción de 42€.
El pago de este importe comprende exclusivamente el derecho a participar en la convocatoria, y no los gastos en los que pudiera incurrir la persona aspirante derivados de su intervención.

El pago de la tasa deberá efectuarse dentro del plazo de presentación de solicitudes y en ningún caso será devuelta. Para su materialización se realizará el abono en la cuenta corriente que se indica a continuación:

IBAN: ES25 2095 0611 0410 6240 7878
SWIFT-BIC: BASKES2BXXX



Izen-emate tasa ordaintzeak ez du inola ere ordetzuko izen-ematea garaiz eta behar bezala betetzeko eta dokumentazioa oinarri hauetan aurreikusitako moduan aurkezteko izapidea.

3. **Dokumentuak posta elektronikoz bidali** beharko dira seleccion.profesorado@musikene.eus helbide elektronikora (ahal dela pdf formatuan) Laugarren oinarrian ezarritako epean. Eskatzen diren dokumentuak:
- Indarrean dagoen NAN, AIZ edo Pasaporte.
 - Hala badagokio, deialdi honetan parte hartzeko eskubidea ematen duten tituluen kopia.
 - *Curriculum vitae*-a, Zazpigarren oinarriko 4. atalean adierazitako egitura izan beharko duena.
 - Irakaskuntza-proiektua, barne hartzen dituelarik nahitaez deialdi honen helburu den materiaren konpetentziak, helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak, eta ebaluazioari dagozkien ohiko eduki eta atalak, bere izaera eta eskola orduak kontutan hartuz.
 - Izena emateko tasa ordaindu izanaren agiria

Curriculum vitae edo Irakaskuntza-proiektu bat baino gehiago bidaliz gero, aurkeztu den azken bertsioa baino ez da baliozkoa izango eta kontutan hartuko, bidalitako data eta ordua kontutan hartuz, beti ere ezarritako epearen barruan izanik.

Musikene hautagaiei aurkeztutako merituen frogak dokumentala eska diezaieke.

Hautagaik berriaz izango dira aurkeztutako dokumentazioaren eta haien egiletzaren erantzule. Datu edo dokumenturen bat faltsutu edo manipulatu gero, deialdi honetan parte hartzeko eta deialdiaren helburu den lanposturako eskubidea galduko luke.

Lehiaketa amaitzerakoan, hautatua izan den hautagaiak zintzeko aitortpena eman beharko du bateraezintasun arrazoirik ez duela adieraziz, beste jarduera publikoren bat egiten duen kasuan edo nolabaiteko pentsioa jasotzen badu.

Laugarrena.- **Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.**
Prozedura honetan on line izena emateko eta dokumentazioa bidaltzeko epea 2026ko maiatzaren 20ra arte (hori barne) egongo da zabalik.

En ningún caso el pago de la tasa de inscripción supondrá la sustitución del trámite de cumplimentación en tiempo y forma de la inscripción y entrega de documentación en la forma prevista en las presentes bases.

3. **Envío de documentación** a la dirección de correo electrónico seleccion.profesorado@musikene.eus (preferentemente en formato pdf) en los plazos establecidos en la base Cuarta. Documentos requeridos:
- DNI, NIE o Pasaporte en vigor.
 - Títulos, en su caso, que habilitan para la participación en la presente convocatoria.
 - *Curriculum vitae*, que deberá seguir la estructura señalada en la base Séptima punto 4.
 - Proyecto docente, que incluirá necesariamente los apartados habituales de competencias, objetivos, contenidos, metodología, recursos, y evaluación para la materia objeto de esta convocatoria, contemplando su naturaleza y carga lectiva.
 - Resguardo de abono de la tasa de inscripción

En caso de que se entregara más de un *Curriculum vitae* o Proyecto Docente, será válida y se tendrá en cuenta única y exclusivamente la última versión presentada, en función de la fecha y hora de entrega registrada, siempre que sea dentro del plazo establecido.

Musikene podrá reclamar de las personas aspirantes la prueba documental de los méritos alegados.

Las personas aspirantes se responsabilizan expresamente de la documentación aportada y de su autoría. En caso de falsedad o manipulación de algún dato o documento, decaerá su derecho a participar en la presente convocatoria, así como a acceder al puesto laboral objeto de la convocatoria.

Al término del concurso, la persona seleccionada deberá aportar una declaración jurada de no incurrir en ninguna causa de incompatibilidad, en el caso de venir desempeñando alguna actividad pública o percibiendo alguna pensión.

Cuarta.- **Plazo de presentación de solicitudes.**
El plazo para la inscripción online, y el envío de la documentación estará abierto hasta el día 20 de mayo de 2026 (inclusive).



Bosgarrena.- **Hautagaiak onartzea.**

1.- Eskeraek aurkezteko epea bukatzen denean, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda argitaratuko du Musikeneren Zuzendaritzak, eta baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoen berri emango du ikastegiko iragarki-oholean eta webgunean.

2.- Baztertzeko arrazoiak izango dira online izen-ematea ez egitea, izen-emate hori eta/edo dokumentuen bidalketa ezarritako epetik kanpo egitea, tasa ez ordaintzea edo epez kanpo ordaintzea, Hirugarren oinarriko ataletan aipatzen diren agiriak ez aurkeztea eta Bigarren oinarrian zehazten diren eskakizunetakoren bat ez betetzea.

3.- Hiru egun natural izango dira baztertzeko erabakiaren aurka Musikeneko Zuzendaritzaren aurrean erreklamazioak aurkezteko, iragarkia Musikeneko iragarki-oholean eta webgunean jartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitutakoan onartutako eta baztertutako hautagaitzen behin betiko zerrenda argitara emango da. Behin betiko zerrenda behin behineko zerrendarentzat ezarritako lekuetan emango da argitara.

Seigarrena.-**Hautaketa-epaimahaiak.**

Hautaketa-organo bat eratuko da hautaketa-prozesu honetarako. Hautaketa-organoa hiru kidek osatuko dute. Oro har, Epaimahaiburua Musikeneko Zuzendari Nagusi eta Akademikoa izango da, edo halakorik ezean berak horretarako izendatutako norbait. Epaimahaiko kide izango dira, halaber, Musikeneko irakasle bat eta profesionalki kualifikatua den kanpoko pertsona bat, biak ere helburu horretarako espresuki izendatuak.

Hautaketa organoaren kide bakoitzerako ordezkotza bat ere egongo da.

Bere erantzukizunetan jarduteko, beharrezkotzat jotzen diren giza eta material baliabideak izango ditu hautaketa-organoak, Musikenek hornituta.

Epaimahaiak ahalmena du ariketak egiterakoan probak berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera gauzatzea eragozten duen iruzurrezko edozein jarduera egiten duten hautagaiak hautaketa-prozeduratik kanpo uzteko. Epaimahaiak horren berri emango dio Zuzendaritzari, eta dagokion aktan idatziz jasoaz utziko du.

Quinta.- **Admisión de candidaturas.**

1.- Expirado el plazo de presentación de solicitudes, la Dirección de Musikene hará pública la relación de aspirantes admitidos y excluidos, en este último caso con indicación de las causas, en el tablón de anuncios del centro y en su página web.

2.- Serán causas de exclusión la no realización de la inscripción online, la realización de dicha inscripción y/o del envío de la documentación fuera del plazo establecido, la falta de pago o el abono fuera de plazo de la tasa de inscripción, la falta de presentación de los documentos a los que se refieren los distintos apartados de la base Tercera, y el incumplimiento de cualquiera de los requisitos especificados en la base Segunda.

3.- Contra el acuerdo de exclusión podrán interponerse reclamaciones ante la Dirección de Musikene en el plazo de tres días naturales desde la fecha de inserción del anuncio correspondiente en el tablón de anuncios de Musikene y en su página web. Pasado este plazo se publicará la lista definitiva de candidaturas admitidas y excluidas. La lista definitiva se publicará en los mismos lugares establecidos para la lista provisional.

Sexta.-**Tribunales de selección.**

Para este proceso selectivo se constituirá un órgano de selección. El órgano de selección estará compuesto por un total de tres miembros. Con carácter general y como Presidenta, actuará la Directora General y Académica de Musikene, o, en su defecto, algún cargo académico designado por ella a tal efecto. Asimismo, formarán parte del tribunal un profesor/a de Musikene y una persona externa cualificada profesionalmente, ambas designadas expresamente para esta función.

Por cada integrante del órgano de selección se procurará un suplente.

Para el desarrollo de sus responsabilidades, el órgano de selección estará asistido de los recursos humanos y materiales que se estimen necesarios, y que serán puestos a su disposición por Musikene.

El tribunal tiene la facultad de poder excluir del procedimiento selectivo a las personas aspirantes que durante la realización de los ejercicios lleven a cabo cualquier actuación de tipo fraudulento que impida el normal desarrollo de la prueba de acuerdo con los principios de igualdad, mérito y capacidad. El tribunal comunicará tales hechos a la Dirección y dejará constancia escrita en el correspondiente acta.



Eratu behar den organo bakoitzaren osaera zehatza Musikeneren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da bakoitzaren jarduera hasi aurretik.

Zazpigarrena.- **Hautaketa-prozesuaren egitura orokorra.**

Hautaketa-prozesua proba baten bitartez gauzatuko da, egitura honekin:

1. Gehienez 20 minutuz XX. mendearen bigarren erdiko egile eta estilo esanguratsuen obrak barne hartzen dituen errepertorio libre eta askotarikoa instrumentu harmoniko edo melodiko batekin interpretatzea. Interpretazioa eta hautaketa xede den materiarekin zerikusia duten inprobisazio-baliabideen erabilera baloratuko dira.
Hala behar izanez gero, proba honetarako instrumentu jotzaile laguntzaileak hautagaiaren kontura izango dira. Musikene hautagaiek behar dituzten instrumentuak jarriko du, Ikastegiaren aukeren arabera, betiere.
Proba hau baztertzaileria izango da eta gehienez 10 puntuko balorazioa izango du.
2. 30 minutuz Musikeneko ikasle talde bati "Inprobisazioren teoria eta praktika, IV" irakasgaiaren eskola bat ematea. Epaimahaiak probaren unean adieraziko du horren edukia eta/edo garatu beharreko obrak, eta galderak egin ditzake.
30 minutu izango dira proban erabiliko den edukia eta audio materiala prestatzeko.
Proba hau baztertzaileria izango da eta gehienez 10 puntuko balorazioa izango du.
3. Epaimahaiaren aurreran proposatutako irakaskuntza-proiektuaren aurkezpena eta defentsa egitea, bertan epaimahaiak egin ditzakeen galderei erantzun beharko zaielarik.
Programazio didaktikoaren aurkezpena eta defentsa egiteko hautagaiek ezingo dute material osagarririk erabili, eta haiek emandako programazio didaktikoaren kopia berbera baino ezin izango dute erabili.
Probaren iraupena gehienez: 20 minutu.
Proba hau baztertzaileria izango da eta gehienez 10 punturekin baloratuko da.
4. Epaimahaiak, halaber, *Curriculum vitae*-a baloratuko du, gehienez 10 punturekin. Puntu horiek lau ataletan banatuko dira, bakoitzari gehienez 2,5 puntu emango zaiolarik:

a1) ibilbide akademiko eta formatiboa

La composición concreta del órgano de selección se hará pública en los tablonos de anuncios de Musikene y en su página web antes del comienzo de la actuación de los tribunales.

Séptima.- **Estructura general del proceso selectivo.**

El proceso selectivo se desarrollará a través de una prueba cuya estructura será la siguiente:

1. Interpretación durante un máximo de 20 minutos con un instrumento armónico o melódico de un repertorio libre y variado, que incluya obras de autores y estilos significativos de la segunda mitad del siglo XX. Se valorará tanto la interpretación como el empleo de recursos de improvisación relacionados con la materia objeto de la selección. En caso de necesitarse, los instrumentistas acompañantes para esta prueba correrán a cargo de las personas aspirantes. Musikene facilitará, en la medida de las posibilidades del Centro, los instrumentos necesarios para las candidaturas. Esta prueba tendrá carácter eliminatorio y se valorará con un máximo de 10 puntos.
2. Impartición de una clase de "Teoría y práctica de la improvisación, IV" durante 30 minutos a un grupo de estudiantes de Musikene. El tribunal indicará en el momento de la prueba el contenido y/o la obra a desarrollar, y podrá realizar preguntas. Se dispondrá de 30 minutos para la preparación del contenido y material de audio a emplear en el desarrollo de la prueba. Esta prueba tendrá carácter eliminatorio y se valorará sobre un máximo de 10 puntos.
3. Presentación y defensa ante el tribunal del proyecto docente propuesto y en la que se deberá responder a las preguntas que el tribunal pueda formular.
Para la presentación y defensa de la programación didáctica las personas aspirantes no podrán utilizar material auxiliar, pudiendo contar únicamente con una copia idéntica de la programación didáctica por ellas entregada.
Duración máxima de la prueba: 20 minutos.
Esta prueba tendrá carácter eliminatorio y se valorará sobre un máximo de 10 puntos.
4. El tribunal valorará, en referencia a la asignatura a impartir, el *Curriculum vitae* con un máximo de 10 puntos, divididos a su vez en cuatro apartados, a cada uno de los cuales se les podrán atribuir hasta 2,5 puntos:

a1) historial académico y formativo



- a2) irakaskuntzan jarduera
- a3) ikerketan jarduera
- a4) musikan jarduera edo jarduera artistikoa

- a2) actividad docente
- a3) actividad investigadora
- a4) actividad musical o artística

Curriculum vitae-a egitura eta atal horien arabera aurkeztu beharko da, kasu bakoitzean titulazioa lortu den, edo lan-esperientziaren eta abarren tokia eta urtea adieraziz.

El *Curriculum vitae* deberá presentarse bajo esta estructura y epígrafes, señalando en cada caso el lugar y año de obtención de la titulación, de la experiencia laboral, etc.

Proba bakoitzaren emaitzak Musikeneren webgunean eta ikastegiko iragarki-oholean argitaratuko dira probaren amaieran. Aldi berean, hurrengo proba egiteko ordutegia argitaratuko da proba gainditu duten hautagaienentzat.

Los resultados de cada una de las pruebas serán publicados en la web de Musikene y en el tablón de anuncios del centro al término de la misma. Al mismo tiempo será publicado el horario de realización de la prueba siguiente para las candidaturas que la hayan superado.

5. Euskararen jakite-maila merezimendu osagarri gisa baloratuko da, eta gehienez 3 puntu emango dira:

5. Se valorará, como mérito suplementario, el nivel de conocimiento del euskera, sobre un máximo de 3 puntos:

- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila, edo hortik gorakoa: 3 puntu.
- Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila: puntu 2,2.

- Nivel C1 o superior del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas: 3 puntos.
- Nivel B2 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas: 2,2 puntos.

Merezimendua baloratu ahal izateko, izangaiak izena emateko epearen barruan dagokion titulua edo agiria aurkeztu beharko du, hauetako dokumenturen baten bitartez:

La persona aspirante deberá presentar, en el plazo de inscripción, el correspondiente título o certificado para que pueda ser valorado mediante una de las siguientes documentaciones:

- 2010eko azaroaren 15eko (EHAA 219 zk.) 297/2010 Dekretuan eta 2017ko uztailaren 20ko (EHAA 138 zk.) 187/2017 Dekretuan jasotzen diren titulu edo ziurtagiriak.
- 2012ko apirilaren 3ko (EHAA 74 zk.) 47/2012 Dekretuaren ondorioz, ikasketa ofizialak euskaraz egiteagatik euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuetsita egotea ziurtatzen duen agiria.

- Los títulos o certificados recogidos en el Decreto 297/2010, de 15 de noviembre de 2010 (BOPV nº 219) y en el Decreto 187/2017, de 20 de julio de 2017 (BOPV nº 138).
- El certificado de exención de acreditar el conocimiento de euskera mediante títulos o certificados lingüísticos por haber realizado los estudios oficiales en euskera, en aplicación del Decreto 47/2012, de 3 de abril de 2012 (BOPV nº 74).

Zortzigarrena.- Deialdiaren ebazpena.

Epaimahaiaren deliberazioen ondoren, Idazkariak argitara emango du azken Akta, derrigor azaldu beharko delarik hautagaien ordena puntuazioaren arabera eta behin betiko proposamena. Idazkariak Musikeneko Zuzendaritzari igorriko dio, lehiaketan puntuazio gorena lortu duenaren kontratazioari ekiteko.

Octava.- Resolución de la convocatoria.

Tras la deliberación del Tribunal, el/la Secretario/a hará pública el Acta final, que debe incluir necesariamente el orden de los/las candidatos/as según su puntuación y la propuesta definitiva. El/La Secretario/a la elevará a la Dirección de Musikene para proceder a la contratación de aquel/aquella que haya alcanzado la puntuación más alta en el concurso.

Berdinketak gertatuz gero, hurrenez-hurren irizpide honi jarraituz ebatziko dira: puntuazio altuagoa hautaketa-prozesuko proba bakoitzean, proba horiek deialdi honetan agertzen diren hurrenkeraren arabera.

En caso de que se produjesen empates, se resolverán atendiendo sucesivamente el siguiente criterio: mayor puntuación en cada uno de las pruebas del proceso selectivo por el orden en las que esas aparecen en la presente convocatoria.



Bederatzigarrena.- Epaimahaiaren ahalmenak.

Epaimahaiak, oinarri hauetan aurreikusi ez den edozertan aurkezten diren zalantzak argitzeko eta hautaketa prozesua modu egokian gauzatzeko beharrezkoak diren akordioak adosteko ahalmena izango du.

Epaimahaiaren kalifikazioak berrikusteko argibideak edo esakerak idatziz aurkeztu ahal izango zaizkio organo honi, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, azken akta jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

Epaimahaiak, halaber, hilabeteko epean ebatziko ditu aurkeztutako eskaerak, Musikeneko Administrazioan erregistratzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Hamargarrena.- Deialdiaren garapena.

Hautaketa Musikeneko egoitzan egingo da 2026ko ekainaren 1, 2 eta 3a bitartean.

Data eta ordutegi zehatzak hautagai kopuruaren arabera emango dira argitara.

Hamaikagarrena.- Datu pertsonalen trataera

Parte-hartzaileek ematen dituzten datuak hautaketa prozedura honetan aurre ikusten diren helburuetarako soilik erabiliko dira.

Datuen tratamendua, hirugarrenei lagapena eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Europako Araudian (EB) ezarritakoaren arabera arauko dira, 30. Artikuluaren baitan.

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira (2018ko abenduaren 6ko BOE, 294 zk.)

Eta horren inguruko garapenerako araudiak.

Hamabigarrena.- Kontratazioa eta lanerako oinarrizko baldintzak.

Honako prozeduraren bitartez hautatzen den izangaiaren lan-baldintzak hauek izango dira:

Novena.- Facultades del tribunal.

El tribunal queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen orden del proceso selectivo en todo lo no previsto en estas bases.

Las posibles aclaraciones o peticiones de revisión de las calificaciones del tribunal se podrán presentar por escrito ante este órgano en un plazo máximo de 10 días hábiles a contar de la fecha de notificación del Acta Final.

El tribunal resolverá a su vez las peticiones presentadas en un plazo máximo de un mes a contar de la fecha de su registro ante la Administración de Musikene.

Décima.-Desarrollo de la convocatoria.

La selección tendrá lugar en la sede de Musikene entre los días 1, 2 y 3 de junio de 2026.

En función del número de candidatos/as, se publicarán fechas y horarios concretos.

Undécima.- Tratamiento de datos de carácter personal

Los datos aportados por las personas participantes se utilizarán con carácter único y exclusivo para los fines previstos en el presente procedimiento selectivo.

El tratamiento de los datos, la cesión a terceros así como los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se regirán por lo dispuesto en el Reglamento Europeo (UE) 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, con especial referencia a su artículo 30.

La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales o LOPDGDD (BOE nº 294 de 6 de diciembre de 2018) con especial referencia a su artículo 31.

Y sus respectivas normativas de desarrollo.

Duodécima.- Contratación y condiciones básicas de trabajo.

Las condiciones básicas de trabajo del aspirante que sea seleccionado a través del presente procedimiento serán las siguientes:



- a) Lan-kontratua mugagabea izango da, indarreko lan-legeriaren arabera dagokion probaldiaren kaltetan izan gabe.
- b) Eskolak emateko agerraldien erregimena asterokoa izango da, eta hala gomendatzen duten materia zehatzetan soilik aztertuko du Musikeneko Zuzendaritzak bestelako erregimen bat ematea.
- c) Urteko soldata gordina Musikeneko hitzarmen kolektiboaren 37. eta 40. artikuluek jasotzen dutena izango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko ekainaren 22ko dataz argitaratua. Lanaldi osoan aritzen ez diren irakasleek, lanaldiaren heineko soldata jasoko dute, euren benetako irakaskuntza-dedikazioaren arabera.
- d) Hautaketa probak gainditu eta deialdi honen helburu den lanpostua lortzen ez duten hautagaiek lan-poltsa bat osatuko dute hiru urtez, deialdi honetan deitu den materialan edo kideko materialan izan daitezkeen irakaskuntza beharrei aurre egiteko.

Hautaketa proba hauetan izena emateak deialdi honetako oinarriak osorik onartzea dakar berarekin.

- a) El contrato se formalizará con carácter laboral indefinido, sin perjuicio del periodo de prueba que corresponda en función de la legislación vigente.
- b) El régimen de comparecencia docente será semanal, y sólo en los casos de materias específicas que así lo recomienden, la Dirección de Musikene valorará la concesión de un régimen distinto.
- c) El salario bruto anual será el establecido en los artículos 37 y 40 del convenio colectivo de Musikene, publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa con fecha de 22 de junio de 2018. Los profesores que no desarrollen la jornada de trabajo completa percibirán su salario proporcionalmente, en función de su dedicación real a la docencia.
- d) Los candidatos o candidatas que superen las pruebas de selección y no accedan al puesto objeto de esta convocatoria, pasarán a formar parte de una bolsa de trabajo, durante un periodo de tres años, con el fin de atender nuevas necesidades de profesorado en la materia objeto de la convocatoria u otras afines.

La inscripción a estas pruebas de selección conlleva la aceptación íntegra de las bases de la presente convocatoria.

Eneko Goenaga Egibar
Zuzendari Kudeatzailea / Director Gerente



PROZEDURA: IRAKASLE HAUTAKETA 26-27
PROCEDIMIENTO: SELECCIÓN DE PROFESORADO 26-27

I ERANSKINA / ANEXO I

LEHIAKETA ZKIA. Nº CONCURSO	IRAKASGAIA* ASIGNATURA*	ESPEZIALITATEA ESPECIALIDAD	ESKOLA ORDUAK ** CARGA LECTIVA **
04	Teoría y práctica de la improvisación, IV Inprobisazioaren teoria eta praktika, IV	Jazz interpretazioa Interpretación Jazz	4,5

(*) Ikastegiko beharrek hala eskatuz gero Zuzendaritzak deialdi honetan jaso diren materien irakasgai afinen irakaskuntza ere ezarri ahal izango du.
En el caso de que las necesidades docentes del centro así lo requirieran, la Dirección podrá asignar la docencia de asignaturas afines a las de la presente convocatoria.

(**) Orduak asteko / Se expresa en horas/semana.
Eskola-orduak alda daitezke, eta ondorioz, soldata ere bai, matrikulatzen diren behin betiko ikasle kopuruaren arabera eta Musikeneko irakaskuntza eskaintzaren antolaketaren arabera.
La carga lectiva puede oscilar con respecto a la cifra indicada, y en consecuencia, también el salario, dependiendo del número definitivo del alumnado matriculado y de la organización de la oferta docente de Musikene.